

Erdi Aldeko Eskualdearen Jardunaliaren Agiria

Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Aurreproiektuaren aurretiko
kontsulta prozesuen Hasiera Jardunaldiaren Agiria

Nafarroa 2018-2030

Parte hartzaileak:

- **Nerea Arana (CERMI)**
- **Iosu Arbizu (Mendigorriako Udaletxea)**
- **Esther Capellán (Erdi Aldeko Patzuergoa)**
- **María Castejón (21 Proiektua)**
- **José Chocarro (Berbinzanako Udala)**
- **Carlos Chocarro (NASUVINSA)**
- **Encarna Ducun (Unzueko Udala)**
- **Ion Erro (21 Proiektua)**
- **Arturo Goldaracena (Tafallako Udaletxea)**
- **José Javier Jaurrieta (Unzueko Udala)**
- **Miguel Angel Jiménez de Cisneros (Nafar Gobernuko Garraio Zerbitzua)**
- **GoizederJuango (Tafallako Trafiko Batzordea)**
- **Pedro Leralta (Tafallako Udaletxea)**
- **José Carlos Lerga (Tafallako Trafiko Batzordea)**
- **Iñaki Maiora (Alkatetza)**
- **Isabel Martín (Tiebas-Muruarte de Retako Udaletxea)**
- **Juanjo Martínez (Tafallako Udaletxea)**
- **Marc Monreal (Services Lingüistiques)**
- **Mauricio Olite Ariz**
- **Eva Oroz San Martín**
- **Ignacio Pérez**
- **Javier Pérez (Tafallako Trafiko Batzordea)**
- **Koldobika Perez de Iriarte (Tafallako Trafiko Batzordea)**
- **Iñaki Pérez Zudaire**
- **Carlos Rubio (IESO Carcastillo)**
- **Amaia Ruiz (Leozeko Udaletxea)**
- **Inés Salinas Garinoaineko Udaletxea)**
- **Rubén Sánchez (Ujueko Udaletxea)**
- **José Miguel Ullate (Tafallako Trafiko Batzordea)**
- **Fernando Unzué (Garinoaineko Udala)**

Gai zerrenda:

- ✓ Erdi Aldeko Eskualdean erabiltzen den garraio erregularraren berriketa prozezuaren eta Hiriarteko Garrioen Plan Integralaren berri emango dugu. Nafar Gobernuko Garraio Zerbitzua.
- ✓ Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Zirriborroaren aurkezpena. Nafar Gobernuko Garraio Zerbitzua.
- ✓ Aurreko puntuen inguruan zalantzak eta iruzkinak.
- ✓ Parte-hartzaileek Mugikortasun Iraunkorrerako Planaren proposamenak egingo dituzte eta bilduko dira.

1. Erdi Aldeko Eskualdean erabiltzen den garraio erregularraren berriketa prozezuaren eta Hiriarteko Garrioen Plan Integralaren berri emango dugu. Nafar Gobernuko Garraio Zerbitzua

Miguel Ángel Jiménez de Cisneros, Nafar Gobernuko Garraio Zerbitzuaren Zuzendaria, PITNA onesteko prozezuaren berri ematen du. Hiriarteko garraioen lizitazioa atzeratzeko arrazoiak azaltzen ditu. Bere Zerbitzuaren nahia, lizitazioak, legislatura bukatu baino lehen ateratzea da.

2. Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Zirriborroaren aurkezpena. Nafar Gobernuko Garraio Zerbitzua.

Miguel Ángel Jiménez de Cisneros Garraiobideen Zerbitzuaren Zuzendariak Planak dituen helburuak eta ildo estrategikoak aurkezten ditu.

3. Aurreko puntuen inguruan zalantzak eta iruzkinak.

9 lagunek parte hartzen dute eta hurrengo gaiak aipatzen dituzte

. Politika publiko guztiek lurralde orekaren aldeko apustua egin behar dute, batez ere mugikortasunaren ikus puntutik. Landa eremuetan dagoen bereizketarekin bukatu behar da

. Mugikortasun Iraunkorrerako Plan Nagusia ez da garraioaren ikuspuntutik soilik hartu behar. Mugikortasuna iraunkorra izan behar da. Zerbitzu Publikoen Berrikuntza Planarekin eskakizun horiek planteatu eta zuzendu behar dira.

. Eskola-garraioa garraio publiko orokorrarekin erabiltzeko aukera baztertu egin da Plan Nagusian. Hezkuntzaren Orden Forala dela eta, garraio eskolarrean gelditzen diren plaza hutsak, ezin dira erabili.

. Herritarren mugikortasun premiei erantzuteko garraio mota ezberdinak integratzeko garrantziaz hitz egiten da (adibidez, garrantzitsua izango litzateke Tafallako autobus geltokia, tren geltokiaren ondoan egongo balego). Garraio Zerbitzutik diote gogoan izan zutela aukera, baino ezinezkoa suertatu zela eraikitzeko partzelarik ez zeudelako. Anezka zerbitzua prezio sinbolikoan abian jarriko da.

. Ezgaitasunak dituzten pertsonen beharrak kontuan hartu: egokitutako autobusak eta taxiak. Kontzesio berriko autobus guztiak gurbil-aulkietarako egokituko dira

. Dauden Zerbitzuen informazio falta. Interneten bidez jende ugari informazioa jasotzen du, baina garraio publikoa erabiltzen duten pertsona ugari (adineko jendeak) ez dute internet erabiltzen. Garraio publikoko informazio daukaten Informazio-puntuak eta txartelak sustatzea.

. Inter hiritar garraioa erabiltzen duten pertsonen osasunerako edo hezkuntzarako arrazoiengatik erabiltzen dute. Erdi Aldeko eskualdeak behar du Iruñera joatea garraio publikoa erabiliz.

- Osasun mailan, zerbitzu eta medikuntza espezialitateen hurbilketa proposatzen da.

. Saihesbiderik ez izatea, mugikortasun iraunkorra zailagoa jartzen du. Aurten lortutako hitzarmena positiboki baloratzen da. Hitzarmenak Nafarroako bide-garraioan eragin handia izango du (Lizarra-Zangotza ardatza).

. "Energia alternatiboaren " adierazpena zalantzan jartzen da (energia nuklearra eta gasa, energia alternatiboak dira baita). Energia berriztagarrien aldeko apustua egin behar da. Erantzuten da Energia trantsizio fase batean gaudela .

. Plan Zuzentzaile eta Nafarroako Parlamentuak egin duen Mugikortasun Iraunkorrari buruzko Txostenaren arteko erlazioei buruz galdetzen da. Bi prozesuen artean ez da inongo erlazioirik eman.

. Planari leporatzen zaio errepidean ematen diren garraioetan ardaztatzea. Proposatzen da trenbidea bultzatzea.

. Aldiriko trena bultzatzea proposatzen da. Erdi Aldeko Eskualdean trena hobetzeko mugitzen hasi da. Erantzuten da, trenak daukan estruktura mantendu beharra dagoela baina ezin daitezke esplotatu, Nafarroan dagoen biztanlearen dentsitatea txikia dela.

. Erdi Aldean pentsatzen ari den Abiadura Handiko trena, Mugikortasun Iraunkor hiru ardatzen kontra doa: ingurune, gizarte eta ekonomiko ardatzen kontra hain zuzen ere. Erdi Aldeko TAP.a eragin handia izango du. Beharrezkoa izango da etorkizunean trenbide azpiegitura garatzea

. Mugikortasun Iraunkor Plana eskuragarritasuna eduki behar du, jende guztiari iristeko. Mugikortasunari buruzko lege guztiak bete behar dira, irisgarritasun unibertsalari buruzko legeria barne. Pertsona guztien mugikortasuna ezinbeztekoa da eta hiritasun eskubide bat bezala ikusi behar dugu. Irisgarritasun unibertsala oso kontuan izango da. Hiritar garraio aurreikuspen guztietan, lineako toki erabilgarri bat egongo da.

. Garraio publiko eskuragarri eta egokiarekin konpromisoa ezinbestekoa da desgaitasuna duten pertsonentzat, horietako askok ezin dute garraio pribatua erabili. Landa-eremuekin bereziki sentikorrek izan beharko dira, oinarritzko zerbitzuetara sartzeko zailtasunak daudelako, esate baterako hezkuntzan edo osasunan.

. Kostuen barneratzea konpromisoa: bidesariak, aparkalekuak, eta abar. Mugikortasunari dagokionez, zergen inguruko ikerketei buruz galdetzen da. Erantzuten da, azterketa hau ez dela egin, baino hurrengo Planan sartuko da.

. Baldorbatik, autobidearekin konexio zuzena eskatzen da, Baldorbatik garraio azpiegitura guztien garraio-eremua da (errepideak, autobidea, trenak, AHT). Erantzuten da PITNA, Nafarroako herrialde guztietara helduko dela.

. AP 15, eko bidesaria Erdi Aldearentzak diskriminazio bat suposatzen du.

4. Parte-hartzaileek Mugikortasun Iraunkorrerako Planaren proposamenak egingo dituzte eta bilduko dira

Eztabaida sortzen da.